



LEKUALDATZE LEHIAKETAREN OINARRIAK, LEHIAKETA SISTEMA BIDEZ ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOKO SUHILTZAILE-GIDARI LANPOSTUAK HORNITZEKO

1.- DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Erakunde Autonomoaren Parke Zentralean hutsik dauden lanpostuak lehiaketa sistema bidez hornitzea.

2.- DEIALDIKO LANPOSTUAK.

Deialdiko lanpostuak suhiltzaile-gidari lanpostuak dira, oinarri hauetan gehigarri gisa erantsi direnak.

3.- PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK.

A.- Erakunde Autonomoko karrerako funtzionario izatea.

B.- Suhiltzaile kategoriakoa izatea.

C.- Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan behin betiko destinorik lortu ez izana, lehiaketaren, barne sustapenaren edo kanpoko hautaketaren bidez.

D.- Lanpostu Zerrendan lanpostu horretarako ezarritako eskakizunak betetzea.

4.- KOMUNIKAZIO ETA JAKINARAZPENAK.

Oinarri hauek eta prozedura honen ondoriozko komunikazio eta jakinarazpenak Arabako Foru Aldundiaren http://www.araba.eus/PortalEmpleo/Sector_Publico/ orrian argitaratuko dira.

5.- PARTE HARTZEKO ESKAERA.

Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak deialdi honen II. Eranskinean jasotako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, 7 laneguneko epean, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, Erakunde Autonomoaren Erregistroan, Gasteizko Probintzia plazako 5eko bulegoetan.

Eskaeran adierazi beharrekoak:



a) Deialdi honen hirugarren oinarrian eskatutako betekizunak betetzearen aitorpena.

b) Aipatutako merezimenduak. Merezimenduak dagozkien ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, eta ezingo da argudiatu ziurtagiriak Erakunde Autonomoaren artxibategi administratiboetan egotea.

Ez da beharrezkoa izango ondorengo hau egiaztatzea:

a) Erakunde Autonomoak aitortutako antzinatasuna.

b) Erakunde Autonomoko lanpostuetan egondako denbora, egindako lanaren balioespenerako.

Merezimenduak balioesteko erreferentzia data deialdia hau onartzen den eguna izango da eta ez dira kontuan hartuko eskaerak aurkezteko epearen barruan egiaztatzen ez diren merezimenduak, nahiz eta haien aipamena egin eskaeran.

6.- ONARTU ETA BAZTERTUEN ZERRENDAA.

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, Administrazio Kontseiluko presidenteak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu eta Arabako Foru Aldundiaren http://www.araba.eus/PortalEmpleo/Sector_Publico/ orrian argitaratzeko aginduko du, eta 3 laneguneko epea irekiko da, hura argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta erreklamazioak ebatzita -horrelakorik egonez gero-, argitara emango da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

7.- BALORAZIO BATZORDEA.

Merezimenduak Balorazio Batzorde batek balioetsiko ditu. Administrazio Kontseiluko presidenteak izendatuko du hori. Batzordearen osaera onartuen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da, hartako kideen egokitasuna eta gaitasuna bermatuko da eta, ahal den neurrian, baita emakumeen eta gizonen arteko oreka ere.

Hauexek osatuko dute batzordea: batzordeburu batek, idazkari batek eta hiru kidek. Balorazio Batzordeko kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Balorazio Batzordeak ebatziko ditu arau hauek aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak, bai eta aurreikusitako gabeko kasuetan zer egin ere. Boto berdinketarik gertatuz gero, batzordeburuak izango du kalitate botoa. Balorazio Batzordea ezin izango da osatu eta ezin izango du jardun, gutxienez hiru kide bertan ez badaude, titullarrak zein ordezkariak, eta gainera, batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, Balorazio Batzordeko kideek ezingo dute lan horretan jardun, eta deialdia egin duen organoari horren berri eman beharko diote. Gainera, izangaiek kideak errekusatu ahal izango dituzte.



Hautaketa prozesuko edozein unetan Balorazio Batzordeak jakiten badu izangairen batek deialdian ezarritako betekizunen bat edo gehiago ez duela betetzen, betiere interesdunari entzun ondoren, izangai hori bazter dezala proposatu beharko dio organo eskudunari, izangaiak eskaeran azaldutako oker edo faltsukeriak adierazita.

Balorazio Batzordeak hautaketa prozesuko edozein unetan eskatu ahal izango ditu alegatutako merezimenduen balioespen prozesuaren edozein fasetan eragina duten jatorrizko agiriak.

8.- LEHIAKETA AURRERA ERAMATEA.

Onartuak izan diren interesdunek aurkeztutako eskaeretan ikusten bada ez dagoela eskatutako lanpostuan konkurrentziarik, hautagai guztien lehen aukera modura, Administrazio Kontseiluko presidenteak Ebazpena emango du, aurkeztutako merezimenduak balioetsi gabe, eta interesdunak lehen aukera modura eskatutako lanpostuetara atxikiko ditu.

Bestela, aurkeztutako merezimenduak balioetsiko ditu Balorazio Batzordeak, ondorengo baremo honen arabera:

1.- Egindako lanaren balioespena.

a.- Goragoko kategoriako eskala operatiboko lanak, berariazko ebazpen bidez onartutako zerbitzu eginkizun bidez.

Ez dira balioetsiko berariazko ebazpenik izan ez duten aldi baterako ordezkatzak.

12 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,20 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko, hilabete oso gisa 30 egun hartuta.

b.- Suhiltzaile lanak.

36 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,30 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko, hilabete oso gisa 30 egun hartuta.

2. Antzintasuna.

Aintzat hartuko da herri administrazioen zerbitzura egindakotzat aitorturiko antzintasuna. 20 puntu lor daitezke gehienez, hain zuzen ere, 0,01 puntu lanean egindako hilabete oso bakoitzeko, hilabete oso gisa 30 egun hartuta.

3.- Euskara jakitea.

Euskara jakitea merezimendu gisa balioetsiko da, ondorengo baremo honen arabera:

- 1 Hizkuntz Eskakizuna egiaztatzea: 3,4 puntu.



- 2 Hizkuntz Eskakizuna egiaztatzea: 6,8 puntu

9.- BERDINKETA.

Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek baliatuko dira berdinketa apurtzeko:

a.- Puntuazio handiagoa, egindako lanaren balioespenean

b.- Puntuazio handiagoa, goragoko kategoriako eskala operatiboko lanpostuetan

c.- Administrazio publikoetan egindako zerbitzuengatik antzintasun gehien egiaztatzen duenaren alde egingo da.

d.- Oraindik ere berdinketa apurtzeko irizpide gehiagoren beharrik badago, balorazio batzordeak finkatuko lituzke, merezimenduaren printzipioari jarraiki.

10.- EMAITZAK ARGITARATZEA.

Merezimenduen balioespena lehen adierazitako orrian argitaratuko da (http://www.araba.eus/PortalEmpleo/Sector_Publico/), eta 5 laneguneko epea egongo da, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, erreklamazioak egiteko.

11.- DESTINOAREN ESLEITZEA.

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, Balorazio Batzordeak Administrazio Kontseiluko presidenteari bidaliko dio behin betiko atxikipen proposamena.

Administrazio Kontseiluko presidentek ebatziko du, eta funtzionarioak behin betiko atxikiko ditu eskuratutako lanpostuetara. Erakunde Autonomoaren Parke Zentrala lanean hasten denean hasiko dira horrela lortutako lanpostuetan, **destinoa Laudioko Parkea duten lanpostuetan izan ezik, horietan berehala hasiko baitira lanean.**

Behin betiko atxikipenei ezingo zaie uko egin, ezta Parke Zentrala lanean hasi gabe badago ere, oraindik.

Jatorrizko lanpostua behin betiko atxikipena ebazten den egunean utziko da, eta Parke Zentralean hasi arte, **zerbitzu eginkizunetan egongo da,** ordura arteko lanpostuetan.

12.- AURKARATZEA Oinarri hauek, deialdia bera eta horretatik eta Balorazio Batzordearen jardunetatik sortzen diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.



I. ERANSKINA
ESKAINITAKO LANPOSTUAK

KODEA		IZENA	DESTINOA	HIZKUNTZ ESKAKIZUNA	DERRIGORTASUN DATA
1106	901	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	902	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	903	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	904	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	905	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	906	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	907	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	908	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	909	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	910	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	911	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	912	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	913	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	914	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	915	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	2017/01/01
1106	916	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	917	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	918	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	919	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	920	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	921	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	922	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	923	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	924	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	925	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	926	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	927	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	928	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	929	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	930	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	931	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	932	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	933	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	934	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	935	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	936	Suhiltzaile-Gidaria	Langraiz Oka	2	
1106	024	Suhiltzaile-Gidaria	Laudio	2	



II. ERANSKINA /ANEXO II

LEHIAKETA / ONARPEN ESKAERA CONCURSO / SOLICITUD DE ADMISIÓN

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

NAN / D.N.IIzena / Nombre
.....
Abizenak / Apellidos:
Helbidea / Domicilio
Herria / Población Probintzia / ProvinciaPK / C.P.....
Tel. Posta elektronikoa / Correo electrónico.....
Ezinduen oharrak / Observaciones discapacitados

EUSKARA / EUSKERA: Ezarri X bat egiaztatuta daukazu hizkuntza eskakizunean
Marque con una X el perfil lingüístico que acredita

HE/PL 1

☐

HE/PL 2

☐

|

EGIAZTATZEN DIREN MEREZIMENDUEN ZERREDA / RELACIÓN DE MÉRITOS QUE ACREDITA

BESTE ADMINISTRAZIOETAKO LANPOSTUETAN EGINDAKO LANA / DESEMPEÑO DE PUESTOS DE TRABAJO EN OTRAS ADMINISTRACIONES

Soilik balioetsiko da ziurtagiria aurkezten bada / Solamente se valorará si se aporta el certificado.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10

**ZEIN LANPOSTUTARA HAUTATZE DEN**

Preferentziak	Lanpostuaren Kodea
1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	
16	
17	
18	
19	
20	
21	
22	
23	
24	
25	
26	
27	
28	
29	
30	
31	
32	
33	
34	
35	
36	
37	

BEHEAN SINATZEN DUENAK

ESKATZEN DU: lanpostua betetzeko lehiaketan onartua izatea.

ADIERAZTEN DU: eskaera orri honetan emandako datu guztiak egiazkoak direla eta deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

LA/EL ABAJO FIRMANTE

SOLICITA: Ser admitido/a al concurso de provisión de puestos.

DECLARA: Que son ciertos todos los datos consignados en esta instancia y que reúne todas las condiciones exigidas en las bases de la convocatoria.

..... Sinadura / Firma